



27. ZENbakia
lotsak GoRa Eta lotsak
beHERa

“Ez dezagun ahaztu irakurleak ez duela testua pasiboki kontsumitzen; bereganatu egiten du, interpretatu, bere zentzua aldatzen du, bere fantasia irristatzen du, bere gogo eta ezinegonak idazlearenekin nahasten ditu. Ekintza fantasmaticoko horretan, lan psikiko horretan eraikitzen da irakurlea”

(Petit, Michèle: 2001, p. 28).

0. AZALA

Kaixo, lagunok!

Iritsi zaigu uda amaierako zenbakia: Lotsa gora eta lotsa behera! Zer ote da?

Aldizkarian lotsak sorrazten dizkigun gorabeheren berri izanen dugu.

Ez dezagun ahaztu lotsa haur, gazte, heldu nahiz zaharrek bizitzan senti dezaketen sentimendu natural bat dela. Batzuek askotan, beste batzuek gutxiagotan, baina noizbait denok sentituko duguna!

Jarraian, gure esku egongo da Irrien Lagunek eskaintzen digutena modu dibertigarri eta atsegin batean jasotzeko proposamenak egitea, irakurtzeko zaletasuna sustatzeko asmoz.

Amaitzeko, azala esku artean duzuelarik, honako galdera hauek partekatzea proposatzen dugu:

- Zer ikusten duzu irudian?
- Zer gertatzen zaio Porrotxi?
- Zure ustez, zeri buruzkoa izango da atal hau?



27. ZENbakia
lotsak GoRa Eta lotsak
beHERa

1. GURE GORPUTZA EZAGUTUZ

Atal honetan, hainbat kolore lagungarri gisara erabiliz, jolasean egiteko aukera ematen zaizue! Ohartuko zineten bezala, lau laukitxo ageri dira orrian, zeinak bakoitzak kolore bat duen, ezta? Bada, horiek erabiliko ditugu proposatzen zaizuen egiteko.

Honako hau egin beharko duzu haurra irakurtzera animatzeko. Ondorengo galderak egin beharko dizkiozu:

- Zer jartzen du laukitxo horian?
- Eta laukitxo urdinean?
- ...

Horrela, lau laukietan jartzen duena irakurri beharko du haurrak. Baina haurrak laukietan jartzen duena irakurtzeaz gain, beste hainbat galdera egin ahal dizkiozu, adibidez:

- Zertan ari dela uste duzu Marimototx errekan?
- Zeri begira ari da Porrotx?
- Zertarako dira ispiluak?
- ...

Horrelako eta antzeko galderek gogoeta egitera eraman dezakete haurra, eta jolas polita bilaka daiteke; bion arteko jolasa!

2. AURKIBIDEA

Atal honetako aurkibidea esku artean dugularik, aldizkarian jorratuko denari buruzko laburpentxoak irakurriko dugu lehendabizi.

Galdetu haurrari, ea, laburpena zer den; ez badaki edo informazioa falta bada, azal iezaiozu zer den eta zertarako balio duen. Horrez gain, laburpenak duen garrantzia azpimarratzea eskatzen dugu. Zergatik? Bada, askotan, edozein testu liburutan agertzen zaizkigun laburpenak irakurtzeko ohiturarik ez dugulako, eta jakin ezazue bertan ager daitekeen informazioa baliagarria suerta dakigukeela irakurketa gidatzeko.



27. ZENbakia
lotsak GoRa Eta lotsak
beHERa

3. PUPU ETA LORE

Pupu eta Loreren komikixoan lotsaren inguruan dihardute bertsotan. Bertso izugarri politak egiten dituzte jada gure lagunek! Ohartuko zara bertsoen amaierak ere hausnartzera bideratzen gaituela... Oraingo honetan, bion artean irakurri komikia, eta amaierako esaldia azaldu haurrari: “Eta orain zer duzu, bihotza? Lotsatu izanaren lotsa!”.

Ondorengo galderak egin ahal dizkiozu:

- Zer gertatu zaio Pupuri azkenean?
- Zertaz ohartu da?
- ...

4. PIRRI TX ETA PORRO TX

Momentu bikaina haurrarekin une goxo eta lasai bat partekatzeke. Irakur dezagun komikia. Jarraian, gure proposamena pertsonaiak banatzean eta irakurketa partekatzean datza.

Komikia amaitutakoan hainbat galdera trukatzea aberatsa dela deritzogu. Ez dezagun ahaztu irakurketaz gozatzeke bideetako bat irakurketa bera partekatzeke beta hartzea dela, atsegina izaten baita irakurketak sorrarazten dizkigun ideia eta pentsamenduak partekatzea. Jarraian, galdera batzuk egingo dizkizuegu:

- Zer gertatu zaio Porrotxi?
- Lotsatzea zerbait negatiboa dela deritzozu?
- Zu lotsatzen zara? Ni...

5. OSASUNA, GURE ONDASUNA

Tiritatxoren aholkuekin jarraituko dugu atal honetan, benetan baliagarri eta erabilgarriak suertatzen direlako. Honako hau da atal honetan haurra irakurketara gerturatzeko erabil dezakezuen estrategia:

- Esan haurrari Tiritatxoren rola hartu beharko duela. Horretarako, mediku jantzi beharko du. Seguru gaude etxean izango duzuela mediku gisara mozorrotzeko zerbait!
- Jantzi dezala mediku mozorroa, eta, ondoren, laukitxoetan ageri diren esaldiak ahoz goran irakur ditzala.



27. ZENBakia
lotsak GoRa Eta lotsak
bEHERa

Hala ere, garrantzitsua da ondo azaltzea haurri esaldi horietan Tiritatxok esaten diguna zergatik den garrantzitsua. Beraz, nahi duzun bezala, azaldu iezaiozu haurri esaldi horien garrantzia zertan datzan.

6. ZENBATAK

Gure lagun zenbatek lotsaren inguruan hitz egingo digute. Ideia izugarri interesgarri eta politik adieraziko dizkigute oraingoan; beraz, komenigarria da haurrak ondo ulertzea bertan adierazten dena. Horretarako, haxe proposatzen dizugu:

- Irakur dezala haurra komiki osoa lehenik eta behin.
- Ondoren, komikiko laukitxo bakoitza banaka irakurtzeko esan, eta lauki bakoitzean diotena ondo ulertu duela ziurtatzeko, egin ieazakiozu galdera pare bat.

Lotsaren inguruan zerbait gehiago adierazi edo azaldu nahi badiozu, aurrera! Ez ahaztu, gureak proposamen edo ideiak besterik ez dira!

7. DOZENAN 13

Zopa eta apoaren istorioarekin jarraitzeko, oraingo honetan zuk irakurriko diozu istoriotxoa. Zu zeu bilakatuko zara protagonista, bai!

Bitartean, haurri ohe gainean etzateko eskatuko diozu, eta kontu izugarri polita irakurriko diozula esango.

Seguru gaude haurrak atentzio handiz entzungo duela istorioa, tonu polit eta erakargarritz irakurriko diozuna!

Aurrera ba! Gozatu eta goza dezala!

8. OLIBATXO

Olibatxoren aholkuekin jarraituko dugu oraingoan. Aholku interesgarri eta beharrezkoak oso! Beharrezkoak natura eta ingurua zaindu eta mantentzeko!

Honako hau proposatzen dizugu haurra irakurketara gerturatzeko.

- Esan haurri gure lagun olibatxok gauza arras interesgarriak kontatuko dizkigula oraingo honetan, eta galdetu ea gauza horiek zeintzuk diren jakiteko gogorik duen ...
- Haurra irakurtzera animatzen bada, bion artean irakurri komikitxoa.



27. ZENbakia
lotsak GoRa Eta lotsak
beHERa

- Aldiz, ez bada irakurtzera animatzen, utzi lasai eta benetan nahi duen momentu batean irakur dezala.
- Irakurri ondoren, eta irakurri duen hori ulertu duela jakiteko, bota galderaren bat edo beste, eta natura zaindu beharraren garrantziaz hitz egin.

9. EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK: TRIKUA

Jolastu nahi? Hona hemen irakurketaz gozatzeko beste proposamen dibertigarri bat:

- Irakur ezazu trikuari buruz gure lagunek kontatzen digutena. Adierazi haurrari adi-adi irakurri behar dela, jarraian egingo duzun jolasa gauzatu ahal izateko. Errepikatu irakurketa behar izanez gero.
- Jarraian, lauki formako orri edo kartulinak moztuko ditugu. Laukitxo horietan trikuari buruzko informazioa idatziko dugu, eta, horrez gain, bestelako animalia baten informazioa — Internetetik atera dezakezue—.
- Ondoren, laukitxoak mahi edo lurzoruan jarri testua ezkutatzuz.
- Amaitzeko, honako hau egin behar duzue: haurrari utzi nahi duen orritxoari bira ematen. Bira ematean, irakurri, eta esan dezala trikuari buruzko informazioa den edo ez.

10. FILOSOFO TXIKIAK

Lotsa? Zer da lotsa? Hasieran esan bezala, guztiok sentitu izan dugu lotsa bizitzako momenturen batean. Gure filosofoek ere izan dituzte lotsak sortutako gorabeherak.

Oraingo honetan, komikian agertzen diren testu zatiak tapatuko ditugu.

Gure proposamena zatika gauzatzea izango da. Lehenik eta behin, lehen orria; irudia interpretatu, eta jarraian topatutako testua irakurri.

Ea zer-nolako forma ematen diozuen komikiari irudietan erreparatuz! ONDO PASA!



27. ZENbakia
lotsak GoRa Eta lotsak
beHERa

11. MARTIN BERTSO

Martin Bertsoren atala irakurtzera animatzeko, hauxe proposatzen dizugu:

Esan haurrari jolas txiki bat egingo duzuela.

Jolasa honako honetan oinarrituko da:

- Komikiaren lehen irudia bakarrik irakurri eta ikusi ahal izango du haurrak.
- Ondoren, lehen irudi eta letra horiez baliatuz, istorio txiki bat sortu beharko du. Seguru gaude istorio izugarri polita sortuko duela!
- Istorioa ahoz goran edo idatziz egin dezake.
- Jarraian, aldizkariko istorioa bion artean irakurriko duzue.

12. LAGUN

Lagun ere lotsatu egiten zen bere buztan berriarekin. Ziur nago zuek ere badakizuela noiz, nola eta zerekin lotsatzen zareten. Jolas hau taldean egitea proposatzen dizuegu! Honela:

- Komikia irakurri ondoren, jar ezazue orri zatitxo txikietan noiz edo zerekin lotsatzen zareten.
- Jarraian, bildu orri guztiak, eta bota kaxa batera.
- Taldean zaudetelarik, orritxoa banaka atera. Irakurri, eta ea asmatzen duzuen nork idatzi duen.

13. MARIKALANBRE

Zure haurra gure lagun Marikalanbreren istorioan murgiltzeko, hauxe proposatzen dizugu oraingoan:

- Erakutsi haurrari komikia, baina ez dezala ezer irakurri. Esan irudiak soilik begiratzeko.
- Utz iezaiozu denboratxo bat irudiak ikusteko.
- Esan marrazkiak ikusiz istorioa —gutxi gorabehera— zeren ingurukoa den asmatu beharko duela.



27. ZENbakia
lotsak GoRa Eta lotsak
beHERa

- Asmatu hori zuri kontatzeko eskatu.
- Ondoren, berak asmatu ipuintxo eta aldizkarian ageri dena konparatzeko, istorioa irakurtzera animatu! Biok batera irakur dezakezue, bakoitzak pertsonaia bat aukeratuz.

14. LARGABISTA

Gogoratu irakurtzeko orduan garrantzitsua dela geure buruari zenbait galdera egitea, irakurri aurretik —gure interesa eta ezagutzak pizteko—, irakurri bitartean —irakurtzen ari garena ulertzen ari garen jakiteko— eta irakurketa amaieran —zer ulertu dugun jakiteko—.

Jarraian, beraz, aukeran jartzen dugu goian aipatu duguna gauzatzea:

- Irakurri aurretik: Zer agertzen da irudian? Zeri buruz ari ote dira?
- Irakurri bitartean: Zer dio largabistak? Zergatik haserretu da Marimotots?...
- Irakurri ondoren: Zer gertatu da?...

GOGOAN IZAN GARRANTZITSUA DELA HAUSNARKETA HORIEK EGITEA!

15. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Baliteke olerki hauek haurrak bakarrik irakurrik ez ulertzea guztiz. Beraz, hauxe proposatzen dizugu:

- Utzi haurrari olerkiak lasai irakurtzen.
- Behin olerkiak irakurrita, esan zuk zeuk irakurriko dizkiozula guztiak.
- Hala ere olerkiak irakurtzeko honako hau egin beharko duzu:
 - Irakurtzen duzun hori gorputz hizkuntzaz azaldu beharko duzu, adibidez:
 - “Begiratzen du behera” —behera begira jarri beharko zara—.
 - “lotsagabe gorrotagarriak antipatikoak” —antipatiko aurpegia jarri beharko duzu—.
 - ...



27. ZENbakia
lotsak GoRa Eta lotsak
beHERa

Baliteke kasu batzuetan ez izatea nahikoa gorputz hizkuntzaren adierazpena. Horrelakoetan, zuk nahi duzun azalpen eta baliabidez hornitu beharko duzu!

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Irakurri komikia, bakarrik, binaka... nahi duzuen bezala. Jarraian komikiari jarraipen bat egiteko beta hartzea eskatzen dizuegu; hori bai, bakoitzak berea. Ondoren, borobilean jarririk, bakoitzak bere jarraipena irakur dezala.

EZ AHAZTU TXALOEKIN!!! GURE NAHIA MOMENTU ATSEGIN BAT IGAROTZEA DA!!!

17. JANTZI ZAPIA!

Testuaren aurrean zaudetelarik eta irakurri aurretik, galdera hauek egin haurrari:

- Zergatik uste duzu hitzak gorriz daudela?
- Garrantzitsua ote da?
- Zer deritzozu?
- Zer egingo zenuke zerbait garrantzitsua dela adierazteko?

18. HAZI-HEZI

Irudia aurrean duzuela, galdera batzuk partekatzea proposatzen dugu:

- Zer da jolasa?
- Garrantzitsua dela deritzozu?
- Irakurriz, jolastu daiteke?
- Ondo pasatzen duzu irakurtzen?

Ainhoa Mendizabal eta Saioa Ibaguren



27. zENbakia
lotsak goRa Eta lotsak
bEHERa